

Noiz eguneratua:  
2021/3/15

# **NAFARROARAKO NEURRIAK**

## **ALARMA-EGOERA KONFINAMENDU PERIMETRALA**

**Martxoaren 12tik 25era arte  
eta  
San Jose zubian (martxoaren  
17tik 21era arte)**

**COVID-19**aren osasun-krisiari aurre egiteko

**Gobernu Irekiaren eta Herritarrentzako Arretaren Zerbitzua**

**Herritarren Arretarako Atala**

## AURKIBIDEA

---

### 1. 1 Neurri eta berritasun nagusiak

### 2. San Jose zubia

### 3. Mugikortasuna

- Alarma egoera
- Konfinamendu perimetrala
- Bilerak eremu publikoan eta pribatuan
- Mugikortasunari buruzko beste galdera batzuk

### 4. Prebentzio-neurri ezohikoak (martxoaren 12tik 25era arte)

- Ostalaritzako establezimenduak eta jatetxeak
- Turismoko ostatuak
- Elkarte gastronomikoak eta peñak
- Garraioa
- Haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak
- Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak eta bestelako ekitaldiak
- Hileta eta beilak eta gurtza-lekuak
- Txikizkako merkataritza establezimenduak eta lokalak, eta jarduera eta zerbitzu profesionalekoak, jendearentzat irekita daudenak
- Hipermerkatuak, saltoki ertain eta handiak, merkataritza-gune edo merkataritza-parkeak, eta haien parte direnak
- Azoka txikiak
- Ekitaldietarako funtzio anitzeko espazioak dauzkaten establezimenduak
- Akademiak, autoeskolak, eta irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeak eta prestakuntza zentroak
- Kirol-jarduerak eta -instalazioak
- Igerilekuak

- Liburutegiak, artxiboak, erakustaretoak, monumentuak eta museoak
- Zinemak, antzokiak, auditoriumak, karpadun zirkoak, aire zabaleko esparruak eta antzeko guneak
- Biltzarrak egitea
- Topaketak, akziodunen eta elkargo profesionalen batzarrak, negozio bilerak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak
- Turismo-gidariak, eta turismo aktiboko eta naturako irteerak
- Bingoak, eta joko- eta jolas-aretoak
- Adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzak

# 1 Neurri eta berritasun nagusiak

Neurri hauek indarrean egonen dira 2021eko martxoaren 12tik martxoaren 25era bitarte, bi egunak barne, eta, egoera epidemiologikoaren arabera, luzatu, aldatu edo bertan behera uzten ahalko dira.

## Era berean, San Jose zubirako salbuespenak ezarri dira, martxoaren 17tik 21era arte

- 8/2021 Foru Dekretua, martxoaren 9koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariarena.
- 6/2021 Foru Agindua, martxoaren 6koa, Osasuneko kontseilariarena
- 9/2021 Foru Dekretua, martxoaren 12koa, Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariarena, otsailaren 23ko 7/2021 Foru Dekretua aldatzen duena.



## 1. San Jose zubia, martxoaren 17tik 21era arte

### Berritasunak:

- **Erabilera pribatuko espazioetan egindako bilerak:** bizikidetza-unitatea baino ez.
- **Erabilera publikoko espazio irekietan egindako bilerak:** gehienez ere sei pertsona, salbu eta bizikideak badira.
- **Erabilera publikoko espazio itxietan egindako bilerak:** gehienez ere lau pertsona, salbu eta bizikideak badira

### Bere horretan gelditzen dira

- **Etxeratzeko agindua:** 23:00etatik 6:00etara bitartean, aurreikusitako salbuespenak izan ezik.
- **Konfinamendu perimetrala.** Mugatuta dago jendea Nafarroara sartu eta bertatik ateratzea, aurreikusitako salbuespenak izan ezik.

## 2. Alarma-egoera

- **Etxeratzeko agindua:** 23:00etatik 6:00etara bitartean, aurreikusitako salbuespenak izan ezik.
- **Konfinamendu perimetrala.** Mugatuta dago jendea Nafarroara sartu eta bertatik ateratzea, aurreikusitako salbuespenak izan ezik.

### **Martxoaren 25era arte, San Jose zubian izan ezik**

- **Erabilera pribatuko espazioetan egindako bilerak: bi bizikidetzak-unitate desberdinetako sei pertsona elkartzen ahal dira gehienez** ere, zaintzaileak eta laguntzakoak barne. **Bizikidetzak-unitatera mugatzea gomendatzen da.**
- **Erabilera publikoko espazioetan egindako bilerak: gehienez ere sei pertsona,** salbu eta bizikideak badira.

### **3. Prebentzio-neurri ezohikoak (martxoaren 12tik 25era arte)**

- **E erabilera publikoko establezimenduek** ahalik eta gehien aireberritu beharko dituzte lokalak, eta, betiere, **egunean hirutan gutxienez.**
- **Ostalaritzako establezimenduak eta jatetxeak**
  - o **Barruan kontsumitzen ahalko da,** baimendutako gehieneko edukieraren % 30era arte.
  - o **Mahaian eta eserita** eginen da beti kontsumoa. Janari-edariak eskatzeko eta hartzeko izanen dira barrak.
  - o Mahaien arteko tartea: 2 metro.
  - o **Lau pertsona mahai bakoitzeko** edo mahai multzo bakoitzeko. Salbuespen gisa, sei lagun ere elkartzen ahalko dira, baldin eta pertsonen arteko 1,5 metroko tartea bermatzen bada.
  - o **Maskara erabiltzea nahitaezkoa** izanen da beti, salbu eta edateko edo jateko unean.
  - o Ahal dela, gomendatzen da establezimenduek **aireztapen naturala izatea, edo artifizial mekanikoa, airearen birzirkulaziorik gabe.**  
Era berean, **ahalik eta gehien aireztatu behar da, bai eta airearen kalitatea neurtu ere. CO2-aren kontzentrazioa milioiko 800 partetik gorakoa** denean, gomendatzen da **aireztapena handitzea edo edukiera gutxitzea,** adierazle horretatik behera jaitsi arte.
  - o **Ordutegia:** 21:00ak arte
- **Aire zabaleko terrazak:** orain arteko neurri berberak
  - o **Irekiak**
  - o **Ordutegia:** 21:00ak arte, husteko lanak barne.
  - o **Maskara erabiltzea nahitaezkoa** izanen da beti, salbu eta edateko edo jateko unean.

- **Mahaien arteko tartea: 2 metro**
  - **Mahaietan eta eserita eginen da beti kontsumoa**
  - **Debekaturik dago** erretzea, bapeatzea edo nikotina bota dezaketen gailuak erabiltzea, **baldin eta ezin bada bermatu 2 metroko segurtasun-tartea. Bezeroei ez erretzeko gomendatzen zaie.**
  - **Mahai bakoitzaren bueltan**, gehienez ere, **lau pertsona** egon dira. Salbuespen gisa, sei lagun elkartzen ahalko dira, baldin eta mahaien neurriek bermatzen badute haien artean 1,5 metro daudela.
  - **70 cm baino gutxiagoko aldea edo diametroa duten mahaien eta/edo upelen bueltan** gehienez ere bi pertsona egon dira, eserita.
- Janariak prestatu eta zerbitzatzeko ahalko dira, **etxera eramateko edo aurretiko hitzordua izanda establezimenduan jasotzeko, 22:30ak arte.**
  - **Kalean**, eserlekuetan, espazio publikoetan, terrazetan eta antzekoetan **erre daiteke**, baina erretzaileek geldirik egon behar dute, mugitu gabe, eta bermatu beharko dute gutxienez 2 metroko segurtasun-tartea gordetzen dutela besteekin.
  - **Lasterkariak ("runners")**: maskara erabili behar dute ezin badute bermatu 1,5 metroko segurtasun-distantzia pertsonen artean.  
**Jende asko biltzen den lekuetan, parkeetan, ibai-pasealekuetan, hiriguneetan** edo antzekoetan, **banaka korrika egitea gomendatzen da, eta ez taldean.**

### **Establezimenduetan eta sektoreetan edukiera berriak ezarriko dira.**

#### **Iruñerriko hiriko bidaiari-garraio erregularrean**

- Ireki daitezkeen **leihatilak** izanez gero, **guztiak irekita** egon beharko dute airea ibil dadin.

#### **Beilak eta hiletak.**

- Gehienez ere **50 pertsona biltzen ahalko dira aire zabalean direnean, eta gehienez 10 toki itxietan.** Hiletan segizioan **50** pertsona elkartzen ahalko dira gehienez.

### **Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak eta beste ospakizun sozial, familiar, erlijioso edo zibil batzuk.**

- Zeremoniaren ondotik **ospakizunak** egiten badira ostalaritzako establezimenduetan edo jatetxeetan, errespetatu beharko dira 1,5 metroko segurtasun-tarteak pertsonen artean, eta **ez da behin ere gaindituko 12 pertsonaren kopurua establezimenduen barruan, eta 20 pertsonarena, kanpoan.**
- Ulertzen da muga hori ospakizunetan ari den talde bakoitzari dagokiola, ongi bereizitako eremuetan baldin badaude.
- Ezin da gainditu **edukieraren % 30** establezimenduetako barnealdean.

### **Hipermerkatuak, azalera ertain eta handiko establezimenduak eta merkataritza-gune edo -parkeak, edo horien zati direnak**

- Ez dute gainditzen ahalko bertan kokatutako merkataritza-lokal bakoitzean **baimendutako gehieneko edukieraren % 40.**
- Ostalaritza- eta jatetxe-jarduerari, bai eta establezimendu horietan dauden zinema- eta jolas-aretoei, jarduera bakoitzerako ezarritako arau eta ordutegi berariazkoak aplikatuko zaizkie.

### **Liburutegi eta ludotekak**

- Liburutegi eta ludoteketan **haurrentzako jarduerak** egiten ahalko dira, gehienez ere **hamabi partaideko taldeetan.**

### **Zuzendutako kirol-jarduera fisikoak espazio itxietan**

- **Gehienez 10 pertsonez osatutako taldeak.** Nafarroako Kirolaren Institutuak xedatutakoaren arabera arautuko dira.
- **15 laguneko taldeetan** egiten ahalko dira, baldin eta instalazioak **parte-hartzaileko 5 metro koadroko** baldintza betetzen badu, **mugikortasun txikiko jardueretan, eta parte-hartzaileko 16 metro koadrokoa, mugikortasun handiko jardueretan,** aireztapen naturala erabiliz, edo behartua (mekanikoa), airearen birzirkulaziorik gabe.

### **Monumentuak, erakustaretoak eta museoak**

- **Bisita edo jarduera gidatuak** gehienez ere **hamabi pertsonako taldeetan** eginen dira, eta **18koak izaten ahalko dira kanpoan direnean.**

### **Turismo-gidarien jarduera**

- Turismo aktiboko eta naturako irteerak **gehienez ere hemezortzi laguneko taldeendako** ere onartuko dira, aldez aurretik erreserba eginda, enpresa edo gidari profesionalekin.

### **Ekitaldietarako erabilera anitzeko espazioak dauzkaten establezimenduak**

- **Erabilera anitzeko aretoak alokatzen dituzten establezimenduak, irekiak** egonen dira, ezarritako neurriak errespetatuz.



## 2 San Jose zubia

---



### 1. G- Ezohiko zer neurri ezarri dira San Jose zubirako?

**E- martxoaren 17tik 21era**, biak barne, neurri hauek ezarriko dira:

- **Espazio pribatuetan, bizikidetzaren unitate berekoak** baizik ezin dira elkartu.
- **Espazio publiko itxietan lau pertsona** biltzen ahal dira gehienez, salbu eta bizikidetzaren unitate berekoak badira.
- **Espazio publiko irekietan sei pertsona** biltzen ahal dira gehienez, salbu eta bizikidetzaren unitate berekoak badira.

**Ez dira sartuko muga horretan:**

- Laneko edo erakundeetako jarduerak, garraioarenak edo Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 3. artikuluko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeenak, unibertsitateko irakaskuntza barne; era berean, ez dira sartuko aplikatzekoak diren arauetan berariazko neurriak ezarriz arautzen diren horiek.

**Bere horretan gelditzen dira**

- Etxeratze agindua: 23:00etatik 6:00etara bitartean, aurreikusitako salbuespenak izan ezik.
- **Konfinamendu perimetrala**. Mugatuta dago jendea Nafarroara sartu eta bertatik ateratzea, aurreikusitako salbuespenak izan ezik.

### 2. G- San Jose zubian, Nafarroatik ateratzen ahal gara oporretara joateko?

**E- Ez, Nafarroan indarrean dago konfinamendu perimetrala**

Mugatuta dago jendea Nafarroara sartu eta bertatik ateratzea, aurreikusitako salbuespenak izan ezik.

### 3. G- San Jose zubian, Nafarroako landetxe batera joaten ahal gara?

**E- Bai**, nolahi ere, kontuan izan alderdi hauek:

**Gelaka alokatzen diren landetxeak, apartamentu turistikoak, eta osorik alokatzen diren etxebizitza turistikoak**

- **Espazio pribatuetan, bizikidetz-unitate berekoak** baizik ezin dira elkartu. **Hau da, elkarrekin bizi direnak baizik ezin dira elkarrekin ostatatu.**

**Gelaka alokatzen diren landetxeak:**

- Gainerako hotel-establezimenduetan bezala jokatuko da.
- Hoteletako eta ostatu turistikoetako eremu amankomunetan, okupazioak ezin izanen du gaintitu baimendutako gehieneko edukieraren % 50, eta une oro mantendu beharko da 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean.

## 3 Mugikortasuna

---

### Alarma-egoera

#### **4. G- Alarma-egoerak indarrean jarraitzen du?**

**E-** Bai. Espainia guztian alarma-egoerak indarrean jarraitzen du, SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

**Kongresuak alarma-egoeraren deklarazioa maiatzaren 9ra arte luzatzea onartu zuen.** Egoera epidemiologikoak hobera egiten badu, lehenago ken daiteke.

Nafarroan, Komunitateko lehendakaria da eskuordetutako agintari eskuduna.

#### **5. G- Etxeratzeko aginduak indarrean jarraitzen du?**

**E- Bai.**

**Ezin da ibili** erabilera publikoko bide edo espazioetatik, **23:00etatik 06:00etara bitartean.**

#### **6. G- Ba al da salbuespenik etxeratzeko aginduan?**

**E- Bai. Salbuespen batzuk daude etxeratzeko aginduan.**

**23:00etatik 6:00etara bitartean, jarduera hauek egiteko bakarrik ibiltzen ahalko da** Nafarroako Foru Komunitateko erabilera publikoko bide edo espazioetatik:

- Sendagaiak, osasun produktuak eta premia biziko beste ondasun batzuk erostea.
- Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduetara joatea.
- Larrialdiko arrazoiengatik albaitaritzako zentroetara joatea.
- Laneko, lanbideko, enpresako, erakundeetako edo lege arloko betebeharrak betetzea.
- Ohiko bizilekura itzultzea, apartatu honetan aurreikusitako jardueretako batzuk egin ondoren.
- Adinekoei, adingabeei, mendekotasuna dutenei, desgaitasuna dutenei edo bereziki kalteberak direnei arreta ematea eta haiek zaintzea.

- Ezinbesteko edo premiazko kasuetan.
- Antzeko beste edozein jarduera egitea, behar bezala egiaztatuta.
- Gasolindegietan edo erregai-zerbitzuguneetan depositua betetzea, aurreko paragrafoetan aurreikusitako jarduerak egiteko beharrezkoa denean.

## **Konfinamendu perimetrala**

### **7. G- Konfinamendu perimetralak indarrean jarraitzen du Nafarroan?**

**E- Bai,** Nafarroan indarrean dago konfinamendu perimetrala. Hau da, mugatuta dago pertsonak Nafarroara sartu eta bertatik ateratzea.

### **8. G- Ba al da salbuespenik konfinamendu perimetralean?**

**E- Bai. Salbuespen batzuk daude** konfinamendu perimetralean.

Baimentzen da jendea Nafarroako Foru Komunitatean libreki sartu eta bertatik ateratzea, arrazoi hauetako batengatik egiten diren eta **behar bezala justifikatuta dauden joan-etorrietan:**

- Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduetara joatea.
- Laneko, lanbideko, enpresako, erakundeetako edo lege arloko betebeharrak betetzea.
- Unibertsitateetara, ikastetxeetara eta heziketa zentroetara joatea, barne direla haur hezkuntzako eskolak eta irakaskuntza ez-arautua ematen duten akademiak, autoeskolak barne.
- Ohiko bizilekura edo familia-bizilekura itzultzea.
- Adinekoei, adingabeei, mendekotasuna dutenei, desgaitasuna dutenei edo bereziki kalteberak direnei arreta ematea eta haiek zaintzea.
- Mugakide diren lurraldeetako finantza eta aseguru entitateetara edo erregai-zerbitzuguneetara joatea.
- Organo publikoen, judizialen edo notarioen aurrean eskatutako jarduketak edo presako jarduketak egitea.
- Baimenak eta agiri ofizialak berritzea, bai eta atzeratu ezin diren beste administrazio-izapide batzuk ere.

- Atzeratu ezin diren azterketa edo proba ofizialak egitea.
- Honakoetan parte hartzen duten kirol taldeak, kirolariak, teknikariak eta arbitroak:
  - Estatuko txapelketa ofizial ez-profesionaletan eta Espainiako kirol federazioen menpeko nazioarteko txapelketetan. Haiei aplikatuko zaie Kirol Kontseilu Gorenak Estatuko 2020-2021eko denboraldiko txapelketa ofizial ez-profesionaletara itzultzeko prestatu duen jarduteko protokoloa.
  - **Autonomia erkidegoetako** eta erkidegoen arteko txapelketa ofizialak.
  - Horrez gain, maila eta errendimendu handiko kirolariak, apartatu honetan aipatzen diren lehiaketa ofizialak prestatzeko kontzentrazioetan parte hartzen dutenak.
- Ezinbesteko edo premiazko kasuetan.
- Antzeko beste edozein jarduera egitea, behar bezala egiaztatuta.

## **9. G- Baimenduta egon arren, Nafarroarako sarrerak eta irteerak justifikatu behar dira?**

### **E- Bai.**

- Beharrezkoa da Nafarroatik ateratzeko eta bertara sartzeko egiaztatzea.
- Administrazioek ez dute ibiltzeko baimen berariazkorik emanen.

### **Nola justifikatzen den:**

- Osasun zentro, zerbitzu eta establezimenduetara joatea
  - Mediku-hitzorduen bidez.
- Laneko, lanbideko, enpresako, erakundeetako edo lege arloko betebeharrak betetzea,
  - Enpresaren ziurtagiriaren bidez.
  - Langile autonomoak: EJZn alta eman izanaren egiaztatzea (azken ordainagiria edo autonomo gisa inskribatuta dagoela egiaztatzen duen beste edozein agiri, instalatzaile ofizialaren txartela, etab.) eta enkargu-oharra, halakorik badago, edo bezeroak egindako zerbitzuaren eskaeraren irudia (argazkia).

- Hitzorduen frogagiria.
- Unibertsitateetara, ikastetxeetara eta heziketa zentroetara joatea, barne direla haur hezkuntzako eskolak eta irakaskuntza ez-arautua ematen duten akademiak, autoeskolak barne.
  - Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak: matrikulazio-orria edo ikastetxeak emandako dokumentua.
  - Unibertsitate-ikasketak: unibertsitate-txartela.
  - Haur Hezkuntzako eskolak: matrikulazio-orria edo ikastetxeak emandako dokumentua.
  - Irakaskuntza ez-arautuak ematen dituzten akademiak, autoeskolak barne: ikastetxeak emandako dokumentua.
- Ohiko bizilekura edo familia-bizilekura itzultzea.
  - NANA edo erroldatze-ziurtagiria.
  - Ohiko etxebizitza ez badator bat NANean agertzen denarekin, orduan aurkeztu behar da errentamendu-kontratua, etxebizitzaren eskriturak, horniduren ordainagiriren bat, etab.
- Adinekoei, adingabeei, mendekotasuna dutenei, desgaitasuna dutenei edo bereziki kalteberak direnei arreta ematea eta haiek zaintzea.
  - Ziurtagiri sozialen edo medikoen bidez.
  - Ziurtagiri sozial edo medikorik ez duten adinekoei dagokienez, arreta jasoko duen pertsonaren NANaren fotokopia.
- Mugakide diren lurraldeetako finantza eta aseguru entitateetara edo erregai-zerbitzuguneetara joatea.
  - Hitzorduaren egiaztatzea, hitzordurik balego, kudeaketa egiaztatzen duen dokumentua, edo entitateak egindako dokumentua.
- Organo publikoen, judizialen edo notarioen aurrean eskatutako jarduketak edo presako jarduketak egitea.
  - Hitzorduaren egiaztatzea, hitzordurik balego, edo kudeaketa egiaztatzen duen dokumentua.
- Baimenak eta agiri ofizialak berritzea, bai eta atzeratu ezin diren beste administrazio-izapide batzuk ere.

- Hitzorduaren egiaztagiria, hitzordurik balego, edo kudeaketa egiaztatzen duen dokumentua.
- Atzeratu ezin diren azterketa edo proba ofizialak egitea.
  - Zentroak emandako dokumentua edo onartuen behin betiko zerrendak aurkeztea.
- Kirol taldeak, kirolariak, teknikariak eta arbitroak.
  - Izen-ematea, tasen ordainagiria (egonez gero), lehiaketaren egutegi ofiziala edo beste edozein egiaztagiri.
- Ezinbesteko edo premiazko kasuengatik, eta antzeko beste edozein jarduerarengatik, behar bezala egiaztatuta.
  - Beharra edo premia egiaztatuz.

## **10. G- Errepidez zirkulatzean Nafarroa zeharkatu al daiteke?**

**E-** Nafarroa gurutzatzen duten errepideetan eta bideetan zirkulatzea baimenduta dago, baldin eta bidaiaren jatorria eta destinoa Nafarroatik kanpo badaude.

## **Bilerak eremu publikoan eta pribatuan**

### **8. G- Zenbat pertsona bil gaitzke kalean?**

**E-** Erabilera publikoko espazioetan egindako bilerak:

- **Sei pertsona biltzen ahalko dira gehienez, bizikideak ez badira behintzat, eta galarazi gabe jendearentzat irekitako bulego, instalazio eta establezimenduei buruz ezartzen diren salbuespenak.**
- **Elkarrekin bizi direnak edo elkarrekin bizi ez direnak** biltzen ahalko dira, baldin eta gehienez ere sei badira.

Hori bai, gizarte esparruan, harremanak mugatzea gomendatzen da.

Mugatzen, baldintzatzen edo debekatzen ahalko dira **igarobide publikoetan egiten diren bilerak eta manifestazioak**, hots, Konstituzioaren 21. artikuluan araututako oinarrizko eskubidea erabiliz egindakoak, baldin eta ez bada bermatzen kutsatzeak eragozteko behar

den segurtasun-tartea sustatzaileek aurkeztutako aldez aurreko jakinarazpenean.

## **9. G- Zenbat pertsona bil gaitzke bilera pribatu batean?**

**E-** Erabilera pribatuko guneetan, berriz, **bi bizikidetza-unitate desberdinetako sei pertsona elkartuko dira gehienez ere;** bizikidetza-unitatetzat joko da etxe berean bizi den pertsona taldea, zainatzaileak eta laguntzakoak barne.

Nolanahi ere, **gomendatzen da bilera horiek bizikidetza-unitatera mugatzea.**

### **Ez dira sartuko muga horretan:**

- Laneko edo erakundeetako jarduerak, garraioarenak edo Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 3. artikuluko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeenak, unibertsitateko irakaskuntza barne; era berean, ez dira sartuko aplikatzekoak diren arauetan berariazko neurriak ezarriz arautzen diren horiek.

## **10. G- Lantokian 6 lagun baino gehiago bil gaitzke?**

**E- Bai.** Hala ere, kontu handiz ibili behar da: maskara erabiliz, pertsonen arteko 1,5 metroko tartea utziz, eskuak garbituz, dokumenturik partekatu gabe, etab.; eta maiz aireztatu behar da lantokia.

Gomendatzen da on line bilkurak lehenestea.

### **Mugikortasunari buruzko beste galdera batzuk**

## **11. G- Har dezakegu ostatu landetxe batean?**

**E- Bai,** nolanahi ere, kontuan izan alderdi hauek:

**Gelaka alokatzen diren landetxeak, apartamentu turistikoak, eta osorik alokatzen diren etxebizitza turistikoak**

- Erabilera pribatuko guneetan, berriz, **bi bizikidetza-unitate desberdinetako sei pertsona elkartzen ahalko dira**



**gehienez;** bizikidetza-unitatetzat joko dira etxe berean bizi direnak, zaintzaileak eta laguntzakoak barne.

Nolanahi ere, **gomendatzen da bizikidetza-unitatekoak baizik ez elkartzea.**

#### **Gelaka alokatzen diren landetxeak:**

- Gainerako hotel-establezimenduetan bezala jokatu da.
- Hoteletako eta ostatu turistikoetako eremu amankomunetan, okupazioak ezin izanen du gainditu baimendutako gehieneko edukieraren % 50, eta une oro mantendu beharko da 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean.

#### **12. G- Lasterka egitera noa, maskara jantzita eraman behar dut?**

**E-**

Lasterkariak ("runners"), jarduera fisikoan ari direnean, **maskara erabili beharko dute beti ezin dutenean bermatu pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea**, Osasuneko kontseilariaren uztailaren 15eko 34/2020 Foru Aginduak ezartzen duenaren arabera.

**Gomendatzen da** jarduera fisiko hori **banaka egitea, eta ez taldeka, jende asko dagoen tokietan, hala nola parke, ibai ondoko pasealekuetan, hirigunean edo antzekoetan.**

#### **13. G- Bidaiatzen ahal dugu elkarrekin autoz, furgonetaz eta abarrez bizikideak ez garenok?**

**E- Bai.** Baina ez da aholkatzen behar-beharrezkoa ez bada.

Nahitaezkoa da maskara erabiltzea eta higiene-neurri guztiak hartzea, baita barnealdea maiz aireztatzea ere.

Gizarte esparruan, bizikideak ez direnekin harremanak mugatzea gomendatzen da.

#### **14. G- Kalean erre daiteke?**

**E-** Oinezkoek pasiboki ez erretzeko duten eskubidea zaindu eta babesteko, eta orobat COVID-19aren kutsapen arriskua murrizteko, **kalean, eserlekuetan, ostalaritzako terrazetan, espazio publikoetan eta antzekoetan erretzen ahalko da, baina**

**erretzaileak geldirik egonen dira, mugitu gabe, eta gutxienez ere 2 metroko segurtasun-tartea bermatu beharko dute beste pertsona batekin.**

**15. G- Erre daiteke taberna, kafetegi, jatetxe eta abarretako terrazetan?**

**E- Debekaturik dago** terrazetan **erretzea**, bapeatzea edo nikotina bota dezaketen gailuak erabiltzea, baldin eta ezin bada bermatu 2 metroko segurtasun-tartea terrazan dauden pertsona guztien artean.

Halere, **gomendatzen zaie** bezeroei bertan ez erretzea, arriskua dagoelako erretzaileak aerosolen emisioa handitzeko, eta, horren ondorioz, COVID-19a kutsatzeko

**16. G- Espetxeetara joateko aukera dago?**

**E-** Bai, baldin eta Espetxe Agintaritzak emandako baimena baduzu.

**17. G- Joan naiteke beste autonomia erkidego bateko hileta batera?**

**E-** Hildakoarekin bigarren mailara arteko odol-ahaidetasuna edo ezkontza-ahaidetasuna justifikatuz gero, bertaratzeko aukera dago. Dena den, galdetu beharko duzu zein diren helmugako autonomia erkidegoan ezarritako neurriak.

**18. G- IATko hitzordu batera joan naiteke beste autonomia erkidego batera?**

**E-** Ez, ezin duzu, egiaztatu ezean Nafarroako IATetan hitzordurik ez dagoela IATa amaitu baino lehen.

**19. G- Animaliak ditut beste autonomia erkidego bateko finka batean. Joan naiteke jaten ematera?**

**E-** Bai, jaten ematera eta zaintzera joan zaitezke.

Ahal izanez gero, pertsona bakar batek joan beharko du, eta zeregin horiek egiteko behar den denborarako baino ez. Animalien jabea nor den eta non bizi diren egiaztatu beharko da.

## **20. G- Atera dezaket txakurra paseatzera etxeratzeko aginduaren ordutegian?**

**E-** Ez. Hala ere, salbuespen hau egin daiteke:

- Lan-ordutegiengatik justifikatzen baduzu zure animaliak etxetik irten gabe egon behar duela denbora tarte luze batean, etxeratzeko aginduaren ordutegian atera ahalko zenuke. Hala ere, honako hauek egin behar dituzu:
  - Ibilaldi laburrak egitea, animaliaaren behar fisiologikoak asetzeko behar den denboran eta etxetik gertu
  - Beste animalia eta/edo pertsona batzuekin kontakturik ez izatea.
  - Enpresaren ziurtagiri bat eramatea, lan-ordutegia adierazten duena, eta egiaztatzea bakarrik bizi zarela edo bizikidetzaren unitateko beste inork ezin duela animalia atera.

## **21. G- Auto bat erosi dut beste autonomia erkidego batean. Horren bila joan naiteke?**

**E-** Hasiera batean, ez legoke justifikatuta beste erkidego bateko kontzesionario batean ibilgailu pertsonal edo familiar bat jasotzea. Hala ere, Nafarroatik irteteko arrazoi justifikatuak egon daitezke:

- Erretiratzeko epeak ezartzen dituen portu franko batean dago ibilgailua.
- Ibilgailua lanerako edo baimendutako beste jarduerara batzuetarako beharrezko elementua da, adibidez: adinekoak, adingabeak edo desgaituak artatzeko.

## 4 Prebentzio neurri ezohikoak

### **22. G- Zein prebentzio neurri orokor bete behar ditugu birusaren transmisioa gutxitzeko?**

Zehazki, honako prebentzio neurri hauek bete beharko ditugu:

- **Maskara behar bezala erabiltzea**, indarra duen araudiarekin bat.
- **Maskarak erabiltzea** hezkuntza-eremuan.
- Pertsonen arteko **tartea**: 1,5 metro gutxienez.
- **Eskuak garbitzea**: soluzio hidroalkoholikoaz edo ur eta xaboiak.
- **Erabilera publikoko establezimenduak**:
  - o **Aireztatzea, ahal dela modu naturalean eta etengabe.**
  - o **Lokalak ahalik eta gehien aireberritu behar dira**, eta, betiere, **egunean hirutan gutxienez.**

### **Martxoaren 12tik 25era**

### **Ostalaritzako establezimenduak eta jatetxeak**

### **23. G- Kontsumitu daiteke ostalaritzako establezimenduetako eta jatetxeetako barnealdean?**

**E- Bai.**

Kontsumoa baimentzen da taberna berezi, ikuskizunetarako kafetegi, taberna, kafetegi eta jatetxe gisako lizentzia duten establezimenduetan, baimendutako gehieneko edukieraren % 30ean.

Establezimenduen **ate nagusietan**, bai barrualdean bai kanpoaldean, **kartelak jarri beharko dira**, gutxienez ere DIN A3 tamainakoak, **eta horietan adierazi beharko da lokalaren gehieneko edukiera.**

### **24. G- Kontsumi dezakegu taberna, jatetxe edo gisakoen barratan?**

**E- Ez.**

Mahaian eta eserita eginen da kontsumoa. Kontsumitzaileek barrak erabiltzen ahalko dituzte janari-edariak eskatu eta hartzeko.

**25. G- Taberna, jatetxe, kafetegi eta abarren barruan maskara jantzita eraman behar dugu?**

**E- Maskara erabiltzea nahitaezkoa izanen da beti, salbu eta edateko edo jateko unean.**

Kontrolatuko da bezeroek maskara behar bezala erabiltzen dutela.

**26. G- Zenbat elkartu gaitezke mahai baten inguruan, eta zer tarte gorde behar dugu gure artean?**

**E-**

- Mahaiaren edo mahaien inguruan **ezin izanen dira lau pertsona baino gehiago elkartu. Salbuespen gisa, gehienez ere sei lagun** elkartzen ahalko dira, baldin eta mahaiaren edo mahai multzoen neurriek 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatzen badute pertsonen artean.
- **Mahaien arteko tarteak 2 metrokoa izan behar du**, mahaien ertzetik neurtuta

**27. G- Nolakoa izan behar du ostalaritza-establezimenduen barruko aireztapenak?**

**E-**

**Hauxe gomendatzen da:**

- Ahal dela, establezimenduek **aireztapen naturala izatea, edo mekanika behartua, airearen birzirkulaziorik gabe.**
- **Ahalik eta gehien aireztatzea eta airearen kalitatea neurtzea, CO2-aren neurgailuen bidez. CO2-aren kontzentrazioa milioiko 800 partetik gorakoa denean, gomendatzen da aireztapena handitzea edo jende kopurua gutxitzea, adierazle horretatik behera jaitsi arte.**

**28. G- Zer ordutan itxi behar dute ostalaritzako establezimenduek eta jatetxeek?**

**E- 21:00etan itxi behar dute beranduenez.**

**29. G- Ostalaritzako establezimenduek eta jatetxeek prestatu eta zerbitza dezakete etxera eramateko janaria?**

**E- Bai.**

Janariak prestatu eta zerbitzatzeko ahalko dira, **etxera eramateko edo aurretiko hitzordua izanda establezimenduan jasotzeko, 22:30ak arte.**

Ezin da alkohola saldu 21.00etatik 22.30era, salbu eramateko menu, bazkari edo afarikoa bada.

**30. G- Zer ordu arte saltzen ahal da alkohola?**

**E-** Debeku da alkohola saltzea 21:00etatik 8:00etara bitarte, publikoari saltzen dioten mota guztietako establezimenduetan, edozein dela ere duten lizentzia.

**31. G- Irekita daude terrazak ostalaritzako establezimenduetan eta jatetxeetan?**

**E- Bai.**

Irekita jarraituko dute taberna berezi, ikuskizunetarako kafetegi, taberna, kafetegi eta jatetxe gisako lizentzia duten establezimenduek eremu publikoan dituzten aire zabaleko terrazek.

**32. G- Zer ordutan itxi behar dute ostalaritzako establezimenduetako eta jatetxeetako terrazek?**

**E- 21:00etan,** establezimendua husteko lanak barne, eta barnealdea ere bai.

**33. G- Erre daiteke ostalaritzako establezimenduetako eta jatetxeetako terrazan?**

**E- Debekaturik dago** terrazetan **erretzea**, bapeatzea edo nikotina bota dezaketen gailuak erabiltzea, **baldin eta ezin bada bermatu 2 metroko segurtasun-tartea** terrazan dauden pertsona guztien artean.

Halere, **gomendatzen zaie bezeroei** terrazetan **ez erretzea**, arriskua dagoelako erretzaileak aerosolen emisioa handitzeko, eta, horren ondorioz, COVID-19a kutsatzeko ere

### **34. G- Maskara jantzi behar dugu tabernako edo jatetxeko terrazan?**

**E- Bai.**

**Maskara erabiltzea nahitaezkoa izanen da beti, salbu eta edateko edo jateko unean.**

Kontrolatuko da bezeroek maskara behar bezala erabiltzen dutela.

### **35. G- Zertaz ari gara "terrazak" aipatzean? Zer ezaugarri izan behar dute?**

**E- Aire zabaleko terrazak honako hauek dira:**

- Gehienez ere bi hormak, paretak edo paramentuk inguratua, gehieneko azalera itxia aldeko perimetroaren % 50ekoa duena, terraza atxikia duen eraikinaren fatxada barne, halakoa bada.
- Ez dira paramentutzat hartzen espazio fisikoak mugatzeko erabiltzen diren eta airearen zirkulazio librea ahalbidetzen duten elementuak, finkoak nahiz mugikorak, altuera edo bolumen gutxikoak (gehienez ere metro batekoak).
- Lehendik dauden eta baimenduta dauden terrazetan ez dira paramentutzat hartuko garaiera handiagoko elementuak, finkoak edo mugikorak, baldin eta ez badira 1,60 metrotik gorakoak.

### **36. G- Zer baldintza bete behar dituzte terrazek ostalaritzako establezimenduetan eta jatetxeetan?**

**E- Terrazak baldintza hauek betez irekiko dira:**

- **Mahaien arteko tartea 2 metrokoa izan behar du**, mahaien ertzetik neurtuta.
- Establezimenduetako titularrek **seinaleak** egin beharko dituzte **lurrean**, mahaiak kokatu behar diren tokietan, segurtasun-tartea errespetatze aldera.
- **Maskara erabiltzea nahitaezkoa izanen da beti, salbu eta edateko edo jateko unean.**
- Kontrolatuko da bezeroek maskara behar bezala erabiltzen dutela.
- **Debekaturik dago terrazetan erretzea, bapeatzea edo nikotina bota dezaketen gailuak erabiltzea, baldin eta ezin bada bermatu 2 metroko segurtasun-tartea terrazan dauden pertsona guztien artean.**

- Halere, gomendatzen zaie bezeroei terrazetan ez erretzea, arriskua dagoelako erretzaileak aerosolen emisioa handitzeko, eta, horren ondorioz, COVID-19a kutsatzeko arriskua ere.
- Mahaian eta eserita eginen da kontsumoa.

### **37. G- Zenbat pertsona bil gaitzke terraza batean?**

**E-**

- Mahai bakoitzaren bueltan, **gehienez ere, lau pertsona egoten ahal dira**. Salbuespen gisa, **gehienez ere sei lagun elkartzen ahalko dira, baldin eta mahaiaren edo mahai multzoen neurriek 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatzen badute** pertsonen artean.
- **70 cm baino gutxiagoko aldea edo diametroa duten mahaien eta/edo upelen bueltan gehienez ere bi pertsona** egonen dira eta, kasu guztietan, eserita.
- Mahaian eta eserita eginen da kontsumoa.

### **38. G- Handitu al dezakegu aire zabaleko terrazarako eremua?**

**E-** Toki-erakundeei gomendatzen zaie aukerak azter ditzatela aire zabaleko terrazarako eremuak handitzeko, baina beti bermatu beharko da mahaien arteko eta pertsonen arteko segurtasun-tartea.

## **Turismoko ostatuak**

### **39. G- Turismoko ostatuak irekita daude?**

**E- Bai.** Turismoko ostatuen jarduera ez dago geldiarazia Nafarroan.

#### **Hotelak**

- Hoteletako eta ostatu turistikoetako eremu amankomunetan, okupazioak ezin izanen du gairitu baimendutako gehieneko edukieraren % 50, eta une oro mantendu beharko da 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean.
- Hoteletako eta ostatu turistikoetako kirol-instalazioei dagokienez (adibidez, igerilekuak eta gimnasioak), instalazio horietarako berriazko neurriak aplikatu beharko dituzte.



## **Aterpetxeak**

- Aterpetxeak: baldin eta logeletan **ohatzeak** badaude eta, beraz, ezin bada pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-tartea gorde, okupazioa baimenduriko **gehieneko** edukieraren ehuneko hogeita hamar izatea baimenduko da.
- Pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-tartea bermatzea ahalbidetzen duten oheak dituzten logelak edo **logela bereiziak dituzten aterpetxeetan**, okupazioa baimenduriko **gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar** izatea baimenduko da.
- Establezimenduaren titularrek antolamendu neurri batzuk ezarriko dituzte, egokiak direnak pilaketak saihesteko eta barnealdean pertsonen arteko segurtasun-tartea gordetzen saiatzeko. Bestela, babes fisikorako beste neurri batzuk ezarriko dituzte bezeroak elkarrengandik zein langileengandik behar bezala babesteko, maskara janztea ekarriko dutenak.
- Establezimenduak jatetxe edo ostalaritzako zerbitzu motaren bat ematen badu, zerbitzuak establezimendu horietarako ezarritako baldintzak beteko ditu.

## **Elkarte gastronomikoak eta peñak**

### **40. G- Elkarteek itxita jarraitu behar dute?**

#### **E- Bai**

Bertan behera dago elkarte gastronomikoen eta peñen jarduera, **eta itxita egon behar dute.**

Jardueren etete horretatik **salbuetsita daude** bostehun biztanle baino gutxiagoko udalerrri eta kontzeju txikietan kokatutakoak, udalerrri edo kontzejuan ez badago kafetegi, jatetxe edo tabernarik, eta haiek badira herritarrek elkartzeko dituzten lokal bakarrak. Kasu horietan, eta salbuespen gisa, alkateek baimena eman dezakete horiek irekitzeko, baldin eta eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte eta ostalaritzarako eta jatetxeetarako aurreikusitako osasun arloko prebentzio neurri guztiak betetzen badira.

## **Garraioa**

**41. G- Zer neurri gomendatzen dira bidaiari gutxiago elkar daitezen garraibideetan jende gehien ibiltzen den orduetan?**

**E- Gomendatzen da enpresek eta administrazio publikoek langileen sarrera-irteerak malgutu ditzatela, edo erraztasunak eman,** bidaiari gutxiago elkar daitezen Iruñerriko hiri garraio erregularreko linea nagusietan jende gehien ibiltzen den orduetan.

**42. G- Zer baldintza bete behar ditu garraioak?**

**E- Iruñerriko bidaiarien hiri garraio erregularreko** ibilgailuen okupazioa murriztu eginen da baimendutako gehieneko edukieraren % 50era, ordu-tarte guztietan, betiere flotaren gehieneko edukierak horretarako aukera ematen badu.

Ibilgailuetan, **baldintza** hauek bete beharko dira:

- Ireki daitezkeen leihatilak izanez gero, **guztiek** irekita egon beharko dute airearen zirkulaziorako.
- **Sarreran eta irteeran gel hidroalkoholikoaren banagailuak** paratuko dira, **eta erabiltzaileei gogoraraziko zaie komeni dela eskuak garbitzea** autobusera sartzean eta horretatik ateratzean.
- **Hiriarteko garraioari dagokionez, eskatuko da autobusetan gel hidroalkoholikoa egotea** sarreran zein irteeran, eta erabiltzaileei gogoraraziko zaie komeni dela eskuak garbitzea autobusera sartzean eta horretatik ateratzean.
- Aurretik aipatutakoa ez zaio eskola-garraioari aplikatuko, jada aplikagarriak zaizkien osasun-babeserako neurriak ezertan eragotzi gabe.

**Haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak**

**43. G- Joan gaitzke jolastokietara edo aire zabalean dauden erabilera publikoko kirol eremuetara?**

**E- Bai,** haurren jolastokiak eta aire zabaleko kirol eremuak erabiltzen ahal dira, baldin eta **ez bada gainditzen baimendutako gehieneko edukieraren % 75.**

**21:00etan itxi behar dute beranduenez**

### **Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak eta bestelako ekitaldiak**

#### **44. G- Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak eta beste ospakizun sozial, familiar, erlijioso edo zibil batzuk. Zer edukiera gorde behar da?**

- Gurtza-lekuetan egiten badira, leku horietarako ezarritako edukieren arabera arautuko dira.
  - Kultu-lekuetan **ez da gainditzen ahalko baimendutako gehieneko edukieraren % 30**, eta, nolana ere, **ez da 150 pertsona baino gehiago** egoten ahalko.
  - **Ospakizunetan ez abestea gomendatzen da.**
- Gurtza-lekuak ez diren lokaletan ospatzen direnen kasuan, pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-tartea errespetatu beharko da (hots, 2,25 metro koadro pertsona bakoitzeko) lokal horien barnean.

### **Zeremonia ondoko ospakizunak**

- Zeremoniaren ondotik **ospakizunak** egiten badira ostalaritzako establezimenduetan edo jatetxeetan, **errespetatu beharko dira 1,5 metroko segurtasun-tarteak pertsonen artean, eta ez da behin ere gaindituko 12 pertsonako kopurua establezimenduen barruan, eta 20 pertsonakoa, kanpoan.**
- Ulertzen da muga hori ospakizunetan ari den talde bakoitzari dagokiola, ongi bereizitako eremuetan baldin badaude.
- Ospakizun horietan, betiere, ez da gaindituko edukieraren % 30 establezimenduen barnealdean.
- Ez dago baimenduta dantzatzeko pista edo horretarako prestatutako eremua erabiltzea.
- Era berean, ostalaritzari eta jatetxeari buruz ezarritako neurri guztiak errespetatu beharko dira.

### **Hileta eta beilak eta gurtza-lekuak**

#### **45. G- Zer baldintza bete behar dira hileta eta beiletan?**

**E-** Hiletetan eta beiletan **gehienez ere 50 pertsona biltzen ahalko dira aire zabalean direnean, eta 10 pertsona gehienez toki itxietan direnean. Hiletan segizioan 50 pertsona elkartzen ahalko dira gehienez.**

**46. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke gurtza-lekuetan?**

**E-** Gurtza-lekuetan, **ezin izanen da gainditu baimendutako gehieneko edukieraren % 30, eta, betiere, 150 pertsona gehienez**; sarrerak eta irteerak mailakatuak izanen dira, eta saihestuko da jendea pilatzea, bai gurtza-lekuen barruan bai sarbideetan eta irteeretan.

Ebidentzia zientifikoa baitago adierazten duena kantuarien bidez kutsatzeko arriskua handitzen dela, **gomendatzen da ospakizunetan ez kantatzea.**

**Txikizkako merkataritza establezimenduak eta lokalak eta jarduera eta zerbitzu profesionalekoak, jendearentzat irekita daudenak.**

**47. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke txikizkako merkataritza establezimendu eta lokaletan eta jarduera eta zerbitzu profesionalekoetan, jendearentzat irekita badaude?**

**E-**

- Ezin izanen da gainditu **baimenduriko gehieneko edukieraren % 50.**
- **21:00etan itxi behar dute** beranduenez.
- Establezimenduen ate nagusietan, bai barrualdean bai kanpoaldean, **ongi ikusten den kartel bat** jarri beharko da, gutxienez ere DIN A3 tamainakoa, eta **horretan adierazi beharko dira lokalaren gehieneko edukiera eta orain baimentzen dena.**

**Hipermerkatuak, saltoki ertain eta handiak, merkataritza-gune edo merkataritza-parkeak, eta haien parte direnak.**

**48. G- Zer neurri bete behar dira hipermerkatuetan, saltoki ertain eta handietan, merkataritza-gune edo merkataritza-parkeetan, eta haien parte diren guneetan?**

**E-**

- **Ez dute gainditzen ahalko bertan kokatutako merkataritza-lokal bakoitzean baimendutako gehieneko edukieraren % 40.**
- Irekita egoteko ordutegia **21:00ak artekoa** izanen da beranduenez.
- Merkataritza-guneetako establezimenduen ate nagusietan, bai barrualdean bai kanpoaldean, **ongi ikusten den kartel bat edo pantaila bat** edo antzekoa jarri beharko da, eta **horretan adierazi beharko da lokalaren edukiera**. Kartela, pantaila edo antzekoa gutxienez ere DIN A3 tamainakoa izanen da.
- Establezimenduen ate nagusietan, ongi ikusten den kartel bat eta/edo antzeko pantaila bat jarri beharko da, gutxienez ere 70 x 120 cm izanen dituen, eta hor adieraziko da zein den establezimenduaren gehieneko edukiera orokorra (merkataritza-gunean dauden establezimendu guztietan baimendutako edukieren batura).
- Ez da utziko bezeroak gune komunetan egotea, barne direla atsedenguneak, saltokien arteko joan-etorrietarako ez bada.
- Josteta eremuak itxita egon beharko dira, hala nola haurren jolastokiak edo antzekoak.
- **Ostalaritza- eta jatetxe-jarduerari**, bai eta puntu honetan aipatutako establezimenduetan dauden zinema- eta jolas-aretoei, jarduera bakoitzerako ezarritako arau eta ordutegi berariazkoak aplikatuko zaizkie.
- Puntu honetan aipatzen diren establezimenduetako arduradunak behartuta daude, une oro, sartzeko ateetan kontrola eta zenbaketa-sistema egitera, establezimenduan onartzen den gehieneko %40ko edukieraren kontrola eta bermea izatera, bai eta bezeroak gune komunetan ez daudela kontrolatu eta bermatzera ere, joan-etorrietarako izan ezik.

## **Azoka txikiak**

### **49. G- Zer baldintza bete behar dituzte azoka txikiak?**

**E-** Bide publikoan, aire zabalean nahiz salmenta ez-sedentarioan aritzen diren azoketan, hots, azoka txikiak deitu ohi diren horietan:

- **Saltokiak aurrez aurre bereizita** egon beharko dira **igarobide baten bidez**, erabiltzaileak handik igaro daitezten. Igarobide horrek **gutxienez ere 4,5 metroko zabalera** izan beharko du, eta bermatu beharko du **erabiltzaileen artean gutxienez ere 1,5 metroko tarte**a gordetzen ahal dela.
- **Elkarren ondoko bi saltokien artean elementu isolatzaileak paratu beharko dira**, elkarren artean independente izan daitezten; halakorik ez bada, 1,5 metroko tarte a egon beharko da, gutxienez.
- **Erabiltzaileak ezin izanen dira inolaz ere saltokien alboetatik ibili**. Barrutiak **sartzeko gune bat eta irteteko beste bat edukiko ditu**, eta biak ongi bereizita egonen dira.
- **21:00etan itxi behar dute** beranduenez.

### Ekitaldiatarako funtzio anitzeko espazioak dauzkaten establezimenduak

#### **50. G- Ireki daitezke ekitaldiatarako funtzio anitzeko espazioak dauzkaten establezimenduak?**

##### **E- Bai**

- Erabilera anitzeko espazioak alokatzen dituzten establezimenduek Gobernuaren 2020ko ekainaren 19ko Erabakian ezarritako higiene eta prebentzio arauak bete beharko dituzte, baita ondoren emandako araudian ezarritakoak ere.
- Ospakizunak egiten badira establezimendu hauetan, kontrol presentziala bermatu beharko dute eta errespetatu beharko dira pertsonen artean 1,5 metroko segurtasun-tarteak gordetzeko neurriak, eta ez dira behin ere **12 pertsona baino gehiago izanen barrualdean, eta 20 pertsona baino gehiago kanpoaldean**. Ulertzen da muga hori ospakizunetan ari den talde bakoitzari dagokiola, ongi bereizitako eremuetan baldin badaude.
- Ospakizun horietan, betiere, ez da gaindituko edukieraren % 30 establezimenduen barnealdean.
- Lokalaren barruan, kontsumoa eserita egiten ahalko da soilik, mahai batean edo mahai batzuk elkartuta.
- Edonola ere, ahalik eta gehien erabiliko da maskara, eta pertsonen arteko tarte a gordeko.

- Lokalean **ez da dantzalekurik baimenduko**.
- Lokal horiek **21:00etan itxiko dira**.
- Ahal dela, gomendatzen da establezimenduek aireztapen naturala izatea, edo artifizial mekanikoa, airearen birzirkulaziorik gabe. Gomendatzen da, halaber, ahalik eta gehien aireztatzea eta airearen kalitatea neurtzea, CO2-aren neurgailuen bidez. **CO2-aren kontzentrazioa milioiko 800 partetik gorakoa** denean, gomendatzen da aireztapena handitzea edo edukiera gutxitzea, adierazle horretatik behera jaitsi arte.

### **Akademiak, autoeskolak, eta irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeak eta prestakuntza zentroak.**

#### **51. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke akademia, autoeskola eta irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeetan eta prestakuntza zentroetan?**

**E-** Akademia, autoeskola, eta irakaskuntza ez-arautuko ikastetxeetan eta prestakuntza zentroetan, jarduera **aurrez aurrekoa izaten ahalko da**, baldin eta **gainditzen ez bada** baimendutako **gehieneko edukieraren % 50** eta bermatzen bada 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean.

**21:00etan itxiko dira** beranduenez.

### **Kirol-jarduerak eta -instalazioak**

Jarraian, Nafarroako Foru Komunitatean kirol-jarduera garatzeko ezohiko prebentzio-neurri espezifikoak azaltzen dira. Neurri horiek Nafarroako Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 25eko 105/2021 Ebazpenaren I. eranskinean [I. eranskinean](#) jasota daude.

#### **52. G- Zer neurri bete behar dira kirol-jardueretan eta -instalazioetan?**

**E-**

- Kirol-jardueretarako edukierak, barnealdean nahiz kanpoaldean egiten direnetarako, Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen ebazpen baten bidez ezarriko dira.
- Debekatuta dago aldagelak, dutxak, iturriak, saunak, bainu turkiarrak edo antzekoak erabiltzea.
- Aldagelak erabiltzen ahalko dira bakar-bakarrik zuzendutako kirol-jarduera fisikoetan, baita baimendutako entrenamendu eta lehiaketetan ere.
- Baimentzen da dutxak erabiltzea, banaka, betiere, eta ezin izanen dituzte pertsona batek baino gehiagok erabili aldi berean. Neurri hau ez da aplikatuko baimendutako lehiaketetan.
- Gimnasioetan kirol-jarduera egiteko, hitzordua eskatu beharko da aurretik. Mugitzea eskatzen duten jardueretarako, 20 m<sup>2</sup>-ko espazioa gordeko da pertsona bakoitzeko. Mugitu gabe egiten diren jardueretan, berriz, 8 m<sup>2</sup>-ko espazioa mantenduko da pertsona bakoitzeko. Nolanahi ere, **nahitaezkoa izanen da maskara erabiltzea.**
- Kirol kolektiboetako taldeak osatzen dituzten kirolariek **entrenamendu** osoak egin ditzakete **aire zabalean**, gehienez ere 25 lagun bitarteko taldeetan kirol instalazio bakoitzeko. Aire zabaleko banakako kirol entrenamenduetan ere 25 pertsonak parte hartzen ahalko dute, gehienez, entrenamendu-talde bakoitzeko.
- Lehiaketa ez-profesionalak eta kirol-ekitaldiak ikusleekin egiten ahalko dira, baldin eta ez bada gairatzen baimendutako gehieneko edukieraren % 50. Instalazio itxietan, 200 lagun joaten ahalko dira gehienez publiko gisa, eta beti errespetatu beharko dira 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean eta maskararen erabilera egokia.
- Lehiaketa ez-profesionalen eta aire zabaleko instalazioetan egiten diren kirol-ekitaldien kasuan, 400 lagun joaten ahalko dira gehienez publiko gisa, eta beti errespetatu beharko dira 1,5 metroko segurtasun-tartea pertsonen artean eta maskararen erabilera egokia.
- Barrualdean 200 pertsona baino gehiago eta kanpokoetan 400 pertsona baino gehiago biltzen dituzten jardueretarako, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren txosten loteslea beharko da.
- Nolanahi ere, debeku da jatea eta edatea kirol-lehiaketa eta -ekitaldietan.



- Aire zabalean antolatutako **txapelketa eta probetan** partaidetza-indizea handia bada, esate baterako, txirrindularitza probak, atletismo lasterketak, mendi-lasterketak, irristaketa, triatloia eta abar badira, gehienez ere 200 partaide izanen dira aldi berean. Gehieneko kopuru hori gaindituz gero, Osasun Departamentuari eskatu behar zaio alde zureko baimena.
- Gune itxietan egiten diren lehiaketa eta probetan, gehienez ere 50 parte-hartzaile izanen dira aldi berean. Gehieneko kopuru hori gaindituz gero, Nafarroako Kirolaren Institutuari eskatu behar zaio alde zureko baimena.
- 21:00etan itxiko/bukatuko dira beranduenez. Hala ere, 21:00etatik aurrera erabiltzen ahalko dira kirol-instalazioak lehiaketak eta entrenamenduak egiteko, baldin eta horretarako baimena ematen badu instalazioaren titularrak. Entrenamenduen kasuan, 22:00ak arte egiten ahalko dira.
- Nafarroako Foru Komunitatean **kirol-ekitaldiak** antolatze eta egiten ahalko dira, Nafarroako Kirol Institutuak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak aurrez aldeko txostena eman ondoren. Nafarroan kirol-ekitaldi bat antolatu eta egin nahi duen entitateak jarduteko protokolo bat igorri beharko du alde zurretik Nafarroako Kirol Institutura. Protokolo horretan, inplikaturako pertsona guztien osasuna babesteko neurri espezifikoak ezarriko dira, osasun-agintariek ezarritako irizpideekin bat etorritik.
- 2021eko otsailaren 26tik aitzina, **Nafarroa mailako lehiaketa ofizialak egiten ahalko dira** zeinahi kirol-modalitateetako kontaktu edo aurkakotza kirolean, senior kategorian edo antzekoetan, gazte kategorian eta antzekoetan, eta kadete kategorian.

### **53. G- Nola egin behar dira zuzendutako kirol-jarduera fisikoak espazio itxietan?**

**E-** Honako hauek jotzen dira zuzendutako jardueratzat:

- **aisialdiarekin, prestakuntza fisikoarekin eta osasunarekin zerikusia duten jarduera fisikoak oro, partaideen adina edozein delarik ere.**
- **Ez dira sartzen** jarduera horien barruan **kirol modalitate bateko entrenamenduak edo kirol hastapeneko eskolak.**

**Baldintzak:**

- Zuzendutako kirol-jarduera fisikoak espazio itxietan egiteko taldeetan, **ez dira arituko 10 pertsona baino gehiago**, eta Nafarroako Kirolaren Institutuak xedatutakoaren arabera arautuko dira.
- Nolanahi ere, zuzendutako kirol-jarduera fisikoak hamabosnaka egiten ahalko dira espazio itxietan, instalazioak **5** metro koadro baldin baditu parte-hartzaile bakoitzeko, mugikortasun txikiko jardueren kasuan, eta **16** metro koadro baditu parte-hartzaile bakoitzeko, berriz, mugikortasun handiko jardueren kasuan, aireberritze natural edo behartuarekin (mekanikoa), airearen birzirkulaziorik gabe.
- Igeriketa-ikastaroek 10 laguneko muga izanen dute. Jaioberriei edo haur oso txikiei ematen zaizkien ikastaroen kasuan, familiako bizikide bat (beti bera) haiekin joatea baimenduko da, eta hori 10 parte-hartzailearen gehieneko kopuruan zenbatuko da.
- Kirol-jarduera fisikoak salbuetsirik daude baldin eta egiten badira Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 3. artikuluan aipatutako irakaskuntzen babesean
- **Nahitaezkoa izanen da maskara erabiltzea** instalazioetako sarbide eta joan-etorrietan, bai eta **kirol-jardueretan ere, intentsitate txikiko modalitateak badira**. Kirol-praktika mota bakoitzaren modalitatea arautuko da Nafarroako Kirolaren Institutuan xedatutakoaren arabera.
- **21:00etan itxiko dira beranduenez.**
- **Lasterkariak ("runners")**, jarduera fisikoan ari direnean, **maskara erabili beharko dute beti ezin dutenean bermatu pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea**, Osasuneko kontseilariaren uztailaren 15eko 34/2020 Foru Aginduak ezartzen duenaren arabera (foru agindu horrek prebentzio neurriak ezartzen ditu COVID-19ak eragindako osasun krisian Nafarroako Foru Komunitatean maskara erabiltzeari dagokionez).
- Halaber, jarduera fisiko hori **pertsona asko dauden tokietan** egiten dutenean –hala nola, parkeetan, ibai ondoko pasealekuetan, hirigunean edo antzekoetan–, **gomendatzen da banaka egitea**, eta ez taldeka.

## Igerilekuak

#### **54. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke igerilekuetan eta zer neurri hartu behar dira?**

**E-** Aisialdiko igerilekuetan edukieraren % 50eko muga gorde beharko da, hala haietara sartzeko nola aisialdiko jardueretan bertan.

Baimentzen da aldagelak erabiltzea, eta dutxak banaka erabiliko dira, eta ezin izanen dituzte pertsona batek baino gehiagok erabili aldi berean.

**Igeriketan**, gehienez ere 4 pertsona sar daitezke kale bakoitzeko, 25 metro edo gutxiagoko igerilekuetan, eta kale desberdinetatik joanez gero, gehienez ere 10 pertsona onartuko dira bi kaleko. 50 metroko igerilekuetan gehienez ere 8 pertsona sar daitezke kale bakoitzeko, eta kale desberdinetatik joanez gero, gehienez ere 20 pertsona onartuko dira.

**Waterpoloan eta igeriketa sinkronizatuan**, 10 metro koadroko espazioa ziurtatuko da partaide bakoitzeko eta gehienez ere 15 pertsona izanen dira ur-xaflako.

**21:00etan itxiko dira** beranduenez.

#### **Liburutegiak, artxiboak, monumentuak, erakustaretoak eta museoak**

#### **55. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke liburutegietan eta zer neurri hartu behar dira?**

**E-** Liburutegiek (titulartasun publikokoak zein pribatukoak izan) beren jarduerari lotutako zerbitzuak emanen dituzte, baina **ezin izanen da gainditu baimenduriko gehieneko edukieraren % 50.**

**Sustatuko da** erabiltzaileek zerbitzuak telematikoki erabiltzea.

Liburutegi eta ludoteketan **haurrentzako jarduerak egiten ahalko dira, gehienez ere hamabi partaideko taldeetan.**

Artxiboak (titulartasun publikokoak zein pribatukoak izan) beren jarduerari lotutako zerbitzuak emanen dituzte, baina gehieneko okupazioak ezin izanen du gainditu baimenduriko gehieneko edukieraren % 50.

**21:00etan itxiko dira** beranduenez.

## **56. G- Zer neurri bete behar dituzte monumentu, erakustareto eta museoek?**

**E-**

- Museoetan eta erakustaretoetan egiten diren jardueretan, **ezin izanen da gainditu baimendutako gehieneko edukieraren % 50.**
- Inaugurazioak eta ekitaldi sozialak egiten ahalko dira, baldin eta jabetxe zerbitzurik ez badago, eta segurtasun-tarteak bermatzen ahal badira. Edukiera % 50ekoa izanen da, eta jarlekuak aurretik esleituko dira. Jarduera zutik egiten bada, edukiera irizpide honi jarraikiz kalkulatu da: 3 metro koadro pertsonako.
- Bisita edo jarduera gidatuak **gehienez ere hamabi pertsonako taldeetan** eginen dira, **eta 18koak izaten ahalko dira kanpoan direnean.**
- **21:00etan** itxi behar dute beranduenez.

## **Zinemak, antzokiak, auditoriumak, karpadun zirkoak, aire zabaleko esparruak eta antzeko guneak**

## **57. G- Edukieraren zer ehuneko bete daiteke zinema-areto, antzoki, auditorium, karpadun zirko eta antzekoetan, aire zabaleko esparru eta antzeko beste lokal batzuetan, eta ikuskizun publikoetarako eta jostetako edo aisialdiko jardueretarako establezimenduetan?**

**E- Zinemak, antzokiak, auditoriumak, karpadun zirkoak eta antzekoak:**

- Beren jarduera gauzatzen ahalko dute aurretik esleitutako eserlekuak erabilia, baldin eta areto bakoitzean **baimendutako gehieneko edukieraren % 50** gainditzeko ez bada.
- Nolanahi ere, **gehienez ere edukiera ezin izanen da 200 pertsonatik gorakoa izan.**
- **Debeku da jatea eta edatea** puntu honetan aipatzen diren ikuskizun edo jardueretan.
- **22:00etan** itxi behar dute beranduenez.

**Aire zabaleko esparruetan eta antzeko lokaletan egiten diren jardueretan, eta ikuskizun publikoetarako, josteta edo aisia**

**jardueretarako aire zabaleko establezimenduetan egiten direnetan,**

- ezin izanen da gainditu baimendutako gehieneko edukieraren % 50; edonola ere, 400 lagun bilduko dira gehienez.

**Barrualdean 200 pertsona baino gehiago eta kanpokoetan 400 pertsona baino gehiago bildu nahi dituzten jardueretarako, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren txosten loteslea** beharko da.

**Biltzarrak, topaguneak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak.**

#### **58. G- Biltzarrak egin daitezke?**

E- Lehenetsiko da biltzarrak telematikoki egitea. Beste modalitate edo formatu batean egin nahi izanez gero, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuari jakinarazi beharko zaio aurretik.

**Topaketak, akziodunen batzarrak, lanbide-elkargoen bilerak, negozio-bilkurak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak egitea.**

#### **59. G-Topaketak, akziodunen eta elkargo profesionalen batzarrak, negozio bilerak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak egin daitezke?**

E- Topaketak, akziodunen eta elkargo profesionalen batzarrak, negozio bilerak, hitzaldiak, ekitaldiak eta antzekoak egiten ahalko dira, baldin eta **ez bada gainditzen baimendutako gehieneko edukieraren % 50, eta betiere 200 lagun gehienez**; horiek eserita egon beharko dute, 1,5 metroko segurtasun-tartea bermatuz horien artean. Horrek ez du galaraziko modalitate telematikoa gomendatzea.

Bozketarik egin behar bada, pertsonak mugitzea saihesten duten bozketa sistemak erabiliko dira.

**Turismo-gidariak, eta turismo aktiboko eta naturako irteerak**

#### **60. G- Zer baldintza bete behar dituzte turismo-gidariak, eta turismo aktiboko eta naturako irteerak?**

**E-**

### **Turismo-gidariak**

- Jarduera horiek, barnean zein kanpoan, ahal dela, **aldez aurretik hitzordua eskatuta** eginen dira eta **taldeak, gehienez ere, hamabi lagunekoak izanen dira.**
- Jarduera egiten den bitartean, saihestuko da jende-pilaketak sor daitezkeen eremu edo tokietatik ibiltzea. Halaber, errespetatu beharko dira monumentuak eta bestelako kultur ekipamenduak bisitatzeko baldintzak, foru agindu honetan ezarritakoaren arabera.

### **Turismo aktiboko eta naturako irteerak**

- Turismo aktiboko eta naturako irteerak **hemezortzi laguneko taldeendako ere onartuko dira, aldez aurretik erreserba eginda**, enpresa edo gidari profesionalekin.

### **Bingoak, eta joko-, apustu- eta jolas-aretoak**

#### **61. G- Zer neurri bete behar dira joko eta apustuetarako lokaletan?**

**E-** Bingoek eta joko-, apustu- eta jolas-aretoek beren jarduera gauzatzeko ahalko dute, baldin eta ez bada gainditzen baimenduriko gehieneko edukieraren % 30.

Establezimenduen ate nagusietan –bai barrualdean, bai kanpoaldean– kartelak jarri beharko dira, gutxienez ere DIN A3 tamainakoak, eta horietan adierazi beharko dira lokalaren gehieneko edukiera eta orain baimentzen dena.

**Establezimendu horiek 21:00etan itxi behar dute, lokalak jendez hustu ondoren.**

Edatekoak edo jatekoak emateko zerbitzua baldin badute, bezeroendako soilik, sektorerako ezarritako arau berariazkoak aplikatuko zaizkie.

### **Adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzak**

#### **62. G- Indarrean jarraitzen du adinekoen eta desgaitasuna duten pertsonen egoitzetara bisitan joateko aukerak?**

**E-** Bai.

Bisitak eta irteerak arautzen dituzten neurriak [abenduaren 16ko 432/2020 Foru Aginduan](#) daude jasota.

Ahaideendako informazio guztia eta ohiko galderak hemen:

- <https://www.navarra.es/eu/adinekoak-edo-desgaitasuna-duten-pertsonak-egoitzetan-dituzten-familientzako-informazioa>